

ZELULAREN MAKETA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Lana planifikatzea	Lana zuzen planifikatu da, eta erantzukizunak, materiala eta denbora modu orekatuan banatu dira.	Lana nahiko ondo planifikatu da, erantzukizunak, materiala eta denbora banatuta.	Lana planifikatzean, gutxi gorabehera banatu dira erantzukizuna, materiala eta denbora.	Ez da lana planifikatu, eta ez dira banatu erantzukizunak, materiala eta denbora.
Maketa antolatzea	Maketa ondo antolatuta eta sailkatuta dago; organulu guztiak argi identifikatu dira eta espazioan egokiro banatu.	Maketa ondo antolatuta eta sailkatuta dago, eta organulu gehienak identifikatu dira.	Maketa antolatuta dago, eta zelula mota aipatu da, baina ez dira identifikatu organulu guztiak.	Maketa ez dago ondo antolatuta, eta ez dira identifikatu ez zelula mota, ez organuluak.
Maketaren kalitatea eta diseinua	Arreta eta sormena nabariak dira maketa eraikitzeke moduan eta kalitatean: elementuak kontu handiz daude fabrikatuta, eta erraz identifika daitezke.	Maketak argi irudikatzen ditu zelula bat eta haren atal guztiak. Erabilitako materialak kalitatezkoak dira, eta ideia sortzaileak islatzen dituzte.	Maketak zelula bat irudikatzen du, baina erabilitako materialetan ez dira behar bezain argi ikusten zelularen atalak.	Maketak zelula bat irudikatzen du, baina ez daude atal guztiak, eta erabilitako materialak ez dira egokiak.
Fitxa antolatzea	Maketak fitxa bat du, eta ondo ditu jasota egilea, zelula mota, zelulak ehunean duen funtzioa, organuluei buruzko azalpena eta zelula erreala baten QR kode edo argazkia.	Maketak fitxa bat du, eta bertan ditu jasota egilea, zelula mota, zelulak ehunean duen funtzioa eta organuluei buruzko azalpena.	Maketak fitxa bat du, eta bertan ditu jasota egilea, zelula mota eta zelulak ehunean duen funtzioa.	Maketak ez du inolako informazio-fitxarik.

